

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Defensa de la sociedad del bienestar. En torno al feminismo y el envejecimiento en la (CAPV): las personas mayores del presente y del futuro



16.Eka - 18.Eka

Kod. U02-21

Edizioa
2021

Jaduer a mota
Ikastaroa

Data
16.Eka - 18.Eka

Kokalekua
Carlos Santamaría Zentroa

Hizkuntzak
Gaztelera

Balio akademikoa
30 ordu

ZUZENDARITZA

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Elisabet Arrieta Aranguren, UPV/EHU, Coordinadora de Grado de Educación Social

Jabier Agirre Elorza, Helduak Adi!

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Azalpena

Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Uda Ikastaro honek zeharkako hiru ardatz nagusi ditu:

1. Ongizatearen gizartea
2. Feminismoa
3. Zahartzea

Oinarrizko ardatz horietatik abiatuta, gogoeta hiru jardunalditan egingo da.

Lehen jardunaldian, adinekoen ikuspegi berri bat aurkeztuko dugu, belaunaldien artekoa eta solidarioa, eta adin guztietako pertsonen hezkuntzaren berrikuspen batekin osatuko da. Eguneko gogoetari amaiera emateko, herritar guztientzat eta, bereziki, adinekoentzat funtsezkoa den gai bat berrikusi eta eguneratuko da: pentsioen errealitatea, gizarte ongizatearen giltzarri.

Bigarren jardunaldiak hainbat begirada feminista bilduko ditu, eta saiaturako gara bateratzen errealitatearen gogoeta eguneratu bat, EAEren ikuspegi instituzionala eta literatura ikuspegi bat, pentsatzea lanbide izan duen eta duen emakume baten talaiatik abiatuta.

Hirugarren eta azken jardunaldia gure testuinguru hurbilenaren berrikuspenari buruzkoa izango da. Europak gaur egun dituen erronkak aztertu eta adinekoen bizi zikloari buruzko gogoeta egingo dugu. Eman diezaiokegu beste zentzu bat bizitzari? Bizi zikloaren etapa berri baten aurrean gaude? Bizi proiektu berri bat? Beharrezkoak dira belaunaldien arteko proiektuak bizitzari zentzu berri hori emateko? Komeni da elkarte eta erakundeen arteko proiektuak kudeatzea pertsona gehiago barne hartu eta bizi zentzu berri hori indartzeko? Horretarako, alor honetan adituak diren pertsonen laguntza izango dugu, gaiari buruzko irakurketa partekatuta egiteko.

Helburuak

Gogoeta gune bat eskaintzea adinekoei eta oro har gizarteari eragiten dieten gaurkotasan handiko gaiei buruz aritzeko.

Urteetan aurrera doan biztanleriaren gehiengoak –“baby boom” delakoaren adinekoek– eta gutxiengoan dauden gazteek osatutako gizartearen bilakaerari erreparatzea.

Ongizatearen estatuaren oinarrizko zutabeetako bat geroari begira aztertzea: etorkizuneko pentsioak.

Gogoeta egitea gure inguruko feminismoari buruz: interpretazio antropologikotik eta datu estatistikoetatik hasi eta emakume pentsalari baten bizi esperientziaraino.

Gaur egungo Europa berrikustea, ekonomiari, Brexit-ari, gizarte politikei, migrazioei, konfiantzari eta herrialdeen arteko lankidetzari buruzko ziurtasun eta ziurgabetasunekin.

Adinekoei buruzko diskurtsoa eguneratzea: Bizi zikloaren etapa berri baten aurrean gaude. Zer esan nahi du adinekoa izateak? Zer espero dugu gure gizarteko adinekoengandik?

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Departamento de
Igualdad, Justicia y
Políticas Sociales

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Programa

2021-06-16

09:00 - 09:15 Recepción de participantes

09:15 - 09:25 *Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena*

Antonio Campos Illarramendi Helduak Adi! - Presidente
Itziar Alkorta Idiakez Cursos de Verano/ Uda Ikastaroak - Directora
Elisabet Arrieta Aranguren UPV/EHU - Directora del Curso

10:00 - 11:00 *"Las nuevas personas mayores y la juventud de siempre"*

Javier Yanguas Lezaun Obra Social de La Caixa - Director Científico del Programa de Mayores

11:00 - 12:00 *"¿Desaprender para aprender? El rol de la educación en todas las edades"*

Nelida Zaitegui de Miguel Consejo Escolar de Euskadi - Directora

12:00 - 12:30 Geldiunea

12:30 - 13:30 *"El papel de la Seguridad Social claves del bienestar: situación actual y retos del futuro"*

Eduardo Garcia Elosua Consejo Económico Social Vasco - Ex miembro del Consejo Económico Social Vasco. Jubilado

2021-06-17

09:30 - 10:30 *"La actualidad y el futuro de las mujeres. Una mirada antropológica"*

Mari Luz Esteban Galarza Universidad del País Vasco EPV-EHU - Profesora de Universidad

10:30 - 11:30 *"Políticas de igualdad en el contexto Vasco"*

Izaskun Landaia Larizgoitia Emakunde - Directora

11:30 - 12:30 Geldiunea

12:30 - 13:30 *"La nueva mujer mayor: reflexiones de una mujer pensante"*

Arantxa Urretabizkaia Bejarano --- Escritora

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

2021-06-18

09:30 - 10:30

"El entorno Europeo: actualidad y retos"

Izaskun Bilbao Barandika Europarlamentaria

10:30 - 11:30

"Nuevo ciclo vital del proyecto vital"

Marije Goicoechea Iturregi Universidad de Deusto - Profesora

11:30 - 12:00

Geldiunea

12:00 - 13:00

"¿Qué quieres ser de mayor? Un proyecto de vida para la nueva etapa del ciclo vital"

Xabier Garagorri Yarza Helduak Adi! - Experto en Desarrollos Curriculares

13:00 - 13:30

Sintesia

40

URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Zuzendariak



Elisabet Arrieta Aranguren

UPV/EHU, Coordinadora de Grado de Educación Social
(Donostia)

Doctora en Sociología, profesora agregada en la Facultad de Educación, Filosofía y Antropología de la Universidad del País Vasco (UPV-EHU). Imparte contenidos relacionados con el Desarrollo Comunitario y la Participación Ciudadana. Ha sido miembro tanto del Grupo de Investigación Parte Hartuz como del Grupo HEPE (Evaluación de Programas, Centros y Sistemas Educativos). En la actualidad forma parte del Grupo de Investigación FLOASS (Resultados y analíticas de aprendizaje en la educación superior) y está trabajando en proyectos de Ciudad Educadora. Sus líneas de investigación son principalmente la Participación Ciudadana, el Envejecimiento Activo, la Inmigración y la Inclusión.. En el ámbito de la gestión, desde 2008 tiene responsabilidades a nivel de Facultad, departamento y Grado.



Jabier Agirre Elorza

Helduak Adi!
(Donostia)

Irakasleak



Itziar Alkorta Idiakez

Uda Ikastaroak / Cursos de Verano, Zuzendari akademikoa / Directora académica
(Donostia)

Zuzenbidean doktorea eta EHUko Zuzenbide Zibileko irakasle titularra. Bere ikerketaren ildo nagusia bioetika da eta gai horren inguruan hainbat monografia, artikuluko zientifiko eta dibulgaziokoak argitaratu ditu. VI eta VII Europako Programa Marko-ko 4 ikerketa-proiektutan parte hartu du, baita Programa Nazionaleko hainbat ikerketa-proiektutan ere. New Yorkeko Hastings Center for Bioethics, Filadelfiako Unibertsitateko Center for Bioethics eta Bordeleko Unibertsitateko irakasle bisitaria izan da. Eusko Ikaskuntzako idazkari nagusia izan zen, eta ondoren Jakiundekoa, Zientzia, Arte eta Letren Akademiakoa. UPV/EHUko irakaskuntzako kalitate eta berrikuntzako errektoreordea 2008 eta 2012 urteen artean, eta hezkuntza-ereduaren garapenez, kalitate-programez eta unibertsitateko irakasleen prestakuntza eta ebaluazioaz arduratzen da. 2013 eta 2015 urteen artean, Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea izan zen.



Izaskun Bilbao Barandika

2009tik -: Europako Parlamenturako diputatua Zuzenbidean lizentziaduna (EHU) Enpresen Kudeaketako Masterra - EHU Karrera politikoa 1987-1991: Bermeoko Udaleko zinegotzia, Hirigintza eta Kultura Saila 1998-2001: VI. Legegintzaldia - Nekazaritza eta Arrantza Batzordeko lehendakaria; Erakunde eta Herrizaingo Batzordeko, Ekonomia eta Aurrekontu Batzordeko eta Emakume eta Gazteria Batzordeko kidea 2001-2005: VII. Legegintzaldia - legebiltzarkidea Eusko Legebiltzarrean; Nekazaritza eta Arrantza Batzordeko lehendakaria; Erakunde eta Herrizaingo Batzordeko, Industria, Merkataritza eta Turismo Batzordeko, Emakume eta Gazteria Batzordeko eta Erreserbatutako Gastuak Kontrolatzeko Batzordeko kidea 2005-2009: VIII. Legegintzaldia - Eusko Legebiltzarreko lehendakaria 2009-07/04: Eusko Legebiltzarreko legebiltzarkidea. 1989-1994: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Zerbitzu zuzendaria 1996-1998: Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saileko Zerbitzu zuzendaria

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus



Antonio Campos Illarramendi

HELDUAK ADI!



Mari Luz Esteban Galarza

UPV/EHU, Irakasle titularra
(Donostia)

Medikuntzan eta Kirurgian lizentziatu (EHU, 1983) eta Familia Plangintza zentro batean lan egin zuen Basaurin (Bizkaia). 1993. urtean Kultur Antropologian doktore titulua lortu zuen Bartzelonako Universitatean. 1998tik aurrera EHUn lan egiten du, non Gizarte Antropologia irakasle titularra eta Ikasketa Feministak eta Generokoak doktorego programako, eta AFIt-Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko koordinatzailea den. Bere argitalpenen artean hauexek nabarmen daitezke: Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio (Edicions Bellaterra, 2004), Crítica del Pensamiento Amoroso (Edicions Bellaterra, 2011) eta Feminismoa eta politikaren eraldaketak (Susa, 2017). Bi poema-liburu ere idatzi ditu: Amaren heriotzak libreago egin ninduen (Pamiela, 2013) eta Andrezaharraren manifestua (Pamiela, 2019). AFIT Antropologia Feminista Ikerketa Taldeko koordinatzailea da.



Xabier Garagorri Yarza

Helduak Adi!

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Helduak Adi!



Eduardo Garcia Elosua

Jubilado. Diplomado en Derecho. Ex- miembro del CES y CRL desde 2000 hasta el 2016. Ex-secretario de Itzarri EPSV y ex- sindicalista.



Marije Goicoechea Iturregi

Universidad de Deusto

Marije Goikoetxea. Giza Eskubideak: erronka etiko eta sozialak gaiko doktorea, tesi honi esker: tratu txarrak mendekotasun egoeran dauden pertsonen: ikuspegi etikoa. Giza Eskubideak: erronka etiko eta sozialak programako doktoregoa. Deustuko Unibertsitateko Gizarte Eraikuntzarako etikako unibertsitate-masterra. Deustuko Unibertsitateko Erljio Zientzietako Ikertzaile-Nahikotasuna eta Teologiako lizentziatura. Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Bioetika Sanitarioko irakaslea. Teologia sistematiko eta Teologia moraleko hirugarren zikloko ikasketak. Teologia Fakultatea. Deustuko Unibertsitatea. Deustuko Unibertsitateko Teologiako Batxilergoa. Deustuko Unibertsitateko Psikologia Klinikoko lizentziaduna. Gaur egungo jarduera profesionala: Deustuko Unibertsitatean (Bilbo) dedikazio osoko irakasle eta ikertzailea (2001etik). Psikologo klinikoa (2001etik), Europako osasun-gaikuntza ofiziala duena. Irakasle laguntzailea hainbat master eta graduondokotan.



40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Izaskun Landaida Larizgoitia

Emakunde, Directora
(Ugao-Miravalles)

Berdintasunerako Agente Masterra Valentziako Unibertsitatean. Gizarte Graduatu Diploma UPV-EHU. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen zuzendaria. EUDELeko zuzendaritza-batzordekidea eta Berdintasun alorreko arduradun politikoa. Bizkaiko Foru Aldundiko Genero Indarkeriaren Behatokiko kidea. Berdintasun eta landa-eremuari buruzko proiektuak egin eta koordinatu ditu Landa XXI - Landa-eremuko Emakumeen eta Familien Elkarteetan. Máster de Agente de Igualdad por la Universidad de Valencia. Diploma de Graduada Social por la UPV-EHU. Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer. Integrante de la ejecutiva de EUDEL y responsable política del área de Igualdad. Integrante del Observatorio de Violencia de Género de la Diputación Foral de Bizkaia. Elaboración y coordinación de proyectos sobre igualdad y ámbito rural en la Asociación de Mujeres y Familias de Ámbito Rural Landa XXI.



Arantxa Urretabizkaia Bejarano

Arantxa Urretabizkaia Bejarano, 1947an Donostian sortua. Lanbidez kazetaria, era guztietako hedabidetan lan egindakoa. Gaur egun Euskal Irrati Telebistan, Diario Vascon, Radio Euskadin eta El Correo egunkarian dihardu. Idazle gisa, itzulpengintza eta poesiaren esparruan argitaratu zituen lehen lanak, baina kontakizungintzaren alorrekoak dira lanik ezagunenak. Besteak beste, argitaratu ditu: ZERGATIK, PANPOX (1979), KOADERNO GORRIA (1998), 3 MARIK (2010), ZURI-BELTZEKO ARGAZKIAK (2014), BIDEAN IKASIA (2016), guztiak gazteleraz ere argitaratuak, eta batzuk beste hainbat hizkuntzatan ere bai.



Javier Yanguas Lezaun

Fundación "La Caixa", Director científico Programa Mayores
(San Sebastián)

"La Caixa" Banku Fundazioa, Adinekoak Programaren (Donostia) zuzendari zientifikoa. Psikologiako doktore-titulua lortu zuen Madrilgo Unibertsitate Autonomoan, Neuropsikologia Klinikoko masterra

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan, Estatistika Metodo Aurreratuen unibertsitate-aditua Urrutiko Hezkuntzako Unibertsitate Nazionalean-UNED eta MBA Deustuko Unibertsitatean. 10 urtez Gipuzkoako Foru Aldundiaren Egogain Gerontologia Zentroan lan egin du, eta 20 urtez Donostiako Maria Fundazioan, I+Gko zuzendari eta Matia Gerontologia Institutuko zuzendari gisa. Gaur egun, "La Caixa" Gizarte Ekintzako Adinekoen Programako zuzendari zientifikoa da, eta International Association of Gerontology and Geriatrics for the European Region erakundeko Gizarte Zientzien eta Portaeraren Saileko zuzendaria. Nazioko eta Europako hainbat ikerketa-proiektu zuzendu ditu, eta hainbat unibertsitatetako irakaslea da.



Nelida Zaitegui de Miguel

Consejo Escolar de Euskadi
(Bilbao)

Nélida Zaitegi de Miguel, maestra y pedagoga, nació en Abanto Ciérvana (1946). Comenzó en 1967 como docente en la escuela pública, siendo también directora, inspectora de Educación y responsable de programas de innovación educativa del Dpto. de Educación del G.V.: Convivencia y paz, Habilidades para la vida y Formación de equipos directivos. Ha coordinado la aplicación del "Contrato-Programa por una Nueva Educación" en varios centros de toda España. Ha sido la presidenta de FEAE Euskadi (Foro Europeo de Administradores de Educación), miembro del Consejo de Innovación Social de Innobasque, directora de la revista Organización y Gestión Educativa, vicepresidenta de la Asociación CONVIVES y directora de su revista, y formadora/asesora tanto en centros educativos como de formación de profesorado de diferentes CCAA. Fue miembro del del observatorioa Estatal de la Convivencia del 2011 al 2020 y presidenta del Consejo Escolar de Euskadi., desde el 2017 al 2020.

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE

2021-06-16 ARTE

[OROKORRA](#)

20,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN

2021-06-16 ARTE

[OROKORRA](#)

20,00 EUR

40
URTE / AÑOS / YEARS



UDA IKASTAROAK
CURSOS
DE VERANO
SUMMER COURSES
www.uik.eus

Kokalekua

Carlos Santamaría Zentroa

Elhuyar plaza 2, 20018 - Donostia

Gipuzkoa